

SEGIDAK problemak

PROBLEMAK

PROGRESIO ARITMETIKOAK

- 1etik hasita, bata bestearen segidako zenbat zenbaki bakoitiren batura da 2.916?
- Kalkula itzazu triangelu angeluzuzen baten aldeak, jakinik hauen luzerak, metrotan adierazita, diferentzia 7 duen progresio aritmetiko bat osatzen dute hiru zenbaki direla.
- Eskailera baten maila guztiak berdinak dira lehen maila izan ezik: 20 cm da. Ehun eskailera-maila igotzean, 1.505 cm-ko altuera igotzen da. Zenbatekoa da maila bakoitzaren altuera?
- Zinema batean seigarren ilaratik pantailara dagoen distantzia 19 m-koa da eta hamaikagarren ilaratik pantailara dagoena 23 m-koa. Aurki itzazu ilaren arteko separazioa eta lehenengo ilaratik pantailara dagoen distantzia ilaren arteko separazioa konstante mantentzen dela jakinik
- Kalkulatu putzu baten sakonera, lehen metroa zulatzea 20 € ordaindu bada, eta gainerakoetan, metro bakoitza aurrekoa baino 5 € gehiago ordaindu bada eta kostu osoa 1.350 €-koa izan dela jakinik.

PROBLEMAK 1

PROGRESIO GEOMETRIKOAK

- Automobila erosi dugu era berezian ordaintzekotan : lehenengo hilean, 2.000€ ; bigarren hilean 1.500€, eta horrela hurrenez hurren, hileroko aurreko hilean ordaindutakoaren $\frac{3}{4}$ ordainduz.
 - a-. Zenbat ordaindu beharko dugu lehenengo urtean ?
 - b-. Zein izango da hilabete guztietako zenbatekoen batura ?
- Xake jokoa asmatu zuenaren kontakizuna, beharbada, ezagutuko duzu. Asmatzailea, erregeari zera esan zion: jarri taulako lehenengo laukian gari gau bat; bi, bigarrenean; lau, hirugarrenean, ... lauki bakoitzean aurrekoa bikoiztuz. Zenbat gari ale eskatu zituen guztira? (gogoratu 64 lauki daudela)
- Hazkunde bizkorreko zuhaitz baten altuera 1,2 aldiz handiagoa da urtero. Urte hasieran altuera 0,75 m bazen, zenbateko altuera izango du 10garren urtean? Zenbat luzatuko da 10 urte horietan?